

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Baratze bat



ARITZ GALARRAGA

Hiri handitik ezin ateratzeak ernatu du nigan berde behar bitxi bat, orain artean sekula ezagutu gabea. Ados, beti izan zait atsegingarri berdetasuna begiestea mendian, basoan, golf zelaian, baina oraingo hau da, seguru obligazioak behartua, ia-ia bitala, arnasten dugun airea bezain, eta kutsadura maila gorabehera –etxealdia hasi zenetik behera egin omen du–. Noski, hor zehar ezin, eta, otu zait, balkoian berean abiatzea nire berde zatia, nire jardina, jardintxo, xumea, txikia, ikusezina ia; nahikoa, ordea, nahi bestetan bisitatzeko, nahi bestetan bi-ziarazteko. Eta Jakoba Errekondori inolako konpetentziarik egin asmo gabe, bistan da.

Azken batean, zer da ba jardina, lilitegi, lore baratze bat, ez-pada paradisuaren berregitea, paradisuaren bilaketa lurrean, gizajendearen garapen izpirituala ahalbidetzen duen lekua, denboraren joanaren korrosiotik babesten gaituena. Baratzetik kanpo dago mina, heriotza, gerra, gosea; baratzearen baitan plazera, bizitza, bakea, ahetasuna eta batez ere armonia. Greziarrek ez zuten asko maite izan, galdetu Homerori bestela: mugikortasuna hobetsi zuten atsedeneraren aldean, uste zuten zela pentsatzera dedikatzen zenarentzat denbora galtzea. Epikuro iritsi zen arte: “Komeni da gizajendeak bere burua kultibatzea, bilaka dadin baratze bat norberarena, ikas dezan eguneroko plazereaz gozatzen, bizitza sinpleaz eta konplikaziorik gabekoaz, bestelako saririk espero gabe”. Altxa dezala eskua ni bezala une honetan berean epikuroar aldarrikatzen denak!

Walter Benjaminek esan zuen, ondo ulertu badiot, behintzat, hiria dela mundua, ez natura, bere bizitza eta bere haurtzarora baino denbora askoz aitzinekoago batean dagoeneko galdua. Baina gure beharra hortxe dago, gure berde beharra, baratzea, kanpoko eta barruko baratzea lantzearena, besterik ez bada baratze hiritar batena. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

“SEGURTASUN
GLOBALAREN LEGEA”



“GAZTEOK EZINBESTEKOAK GARA HIZKUNTZA BATEN TRANSMISIOAN”

MAITE SARASOLA, GAZTEALDIKO PARTE-HARTZAILEETAKO BAT

Bederatzi gazte zortzi egunez euskara hutsean bizitzen saiatu dira. Lutxo Egia artistak 2015ean egindako ariketa errepikatu nahi izan dute. Azaroaren 12tik 19ra euskara baino ez dute hitz egin eta Gaztealdia deitu diote ariketari. “Helburua hizkuntza talkak zeintzuk diren ikustea eta oster horiei aurre egiteko baliabideak lortzea dela esango nuke. Adibidez banketxera edo osasun zentrora goazenean eta gaztelaniaz erantzuten digutenerako baliabideak sortzea, nolabait jarreran tinko mantentzeko”, dio Sarasolak. **URIOLA.EUS (2020/10/11)**

